



ATAUNGO UDALA

Gimnasioa erabiltzeko arauak

Ekaineko egoera berean jarraitzen dugunez, ezinbestekoa da oraingoz gimnasioa erabili ahal izateko arau hauek betetzea:

- Ordua hartu behar da, udaletxera deituta bulego ordutegian (09:00-14:00). Telefonoa: 943180011.
- Astean hiru txanda hartu ahal izango dira gehienez.
- Gehienez ordubeterako txanda hartu ahal izango da. Ondoren inor ez badago, luzatu ahal izango da.
- Pilotalekua edo kantxa erabili nahi duenak, eskatu egin behar du, ez da nahikoa gimnasioan txanda hartzea.
- Aldi berean ezingo dira bi lagun baino gehiago sartu gimnasioan.
- Aldagelarik eta dutxarik ezingo da erabili oraingoz (erabiltzen den aldiro garbitu eta desinfektatu behar da, eta oraintxe bertan ez daukagu horretarako baliabiderik).
- Erabiltzen diren gailuak norberak garbitu beharko ditu, erabiltzen hasi aurretik eta ondoren (garbitzeko produktuak gimnasioan bertan egongo dira).

Arauak betetzen ez dituenari giltza kenduko zaio aldi baterako.

Arduraz jokatu mesedez, guztion osasuna dago-eta jokoan.

Ataunen, 2020ko irailaren 7an.

